

## VI. PAZKO IGANDEA (A)

### Otoitza

Jainko ahalguztiduna,  
hilen artetik piztu den gure Jauna goresteko  
ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;  
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna,  
beti geure egintzetan bete dezagula.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 8, 5-8. 14-17

*Eskuak ezartzen zizkieten,  
eta Espiritu Santua hartzen zuten.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Felipe Samariako herrira jaitsi zen, eta Kristoren berri eman zien; guztiek arretaz eta gogo batez hartzen zuten Felipek esaten zuena; entzuten baitzituzten eta beren begiz ikusten, hark egiten zituen mirariak: etsaidun askorengandik espiritu lohiak ateratzen ziren deiadarka, eta elbarri eta herren asko sendatzen zituen. Horregatik poz handia izan zen herri hartan.

Jerusalenen zeuden apostoluek, Samariak Jaungoikoaren hitza onartu zuela entzun zutenean, Pedro eta Joan bidali zituzten haiengana. Eta biok iritsi zirenean, haien alde otoitz egin zuten, Espiritu Santua har zezaten; oraindik ez baitzen haietako inorengana jaitsia; Jesus Jaunaren izenean bataiatuak bakarrik zeuden. Orduan eskuak ezartzen zizkieten, eta Espiritu Santua hartzen zuten.

ERANTZUN SALMOA: Sal 65, 1-3a. 4-5. 6-7a. 16 eta 20

R/. **Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.**

Edota: **Aleluia.**

Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari,  
egin eresi Haren izen ederrari,  
eman gorespen eder Berari.

Esan Jainkoari: «Zuk eginak bai direla harrigarriak!» R/.

Ahuspeztu bedi lur osoa zure aurrean eresi eginez,  
zure izenari eresi eginez.

Zatozte eta ikus Jainkoaren lanak,  
harritzeko dira eta gizakiengatik egin dituenak. R/.

Itsasoa lehor bihurtu du,  
oinez igaro dira ibaiaren erditik;  
beraz, poztu gaitezen Harekin.  
Nagusi da ahalizatez betiko. R/.

Zatozte eta entzun, Jainkoaren beldur zaretenok,  
 esango dizkizuet nire alde Hark eginak.  
 Bedeinkatua Jainkoa, ez baitu uxatu nire eskaria,  
 ez baitit ukatu bere grazia. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 P 3, 15-18

*Heriotza jasan zuen bere gorputzean,  
 baina bizia hartu zuen berriro Espirituarengatik.*

San Pedro Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Gora ezazue Jauna, Kristo, zeuen bihotzetan, eta prest egon beti zeuen itxaropenaren arrazoibidea emateko, eskatzen dizueten guztiei; baina era onean eta begirunez, barrena garbi duzuela. Horrela, zuen kontra esaten dutena, lotsagarri gerta dakien, zuen kristau jokabide ona itsusten dutenei. Hobe da, Jaungoikoak hala nahi badu, ongi eginez nekeak izatea, gaizki eginez baino.

Kristok ere heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko –Zintzoak, zintzo ez direnengatik–, gu Jaungoikoarengana eramateko. Heriotza jasan zuen bere gorputzean, baina bizia hartu zuen berriro Espirituarengatik.

EBANJELIOA: Jn 14, 15-21

**Aleluia:** Jn 14, 23b

R/. Aleluia.

V/. Ni maite nauenak, beteko du nire hitza  
 –dio Jaunak–,  
 nire Aitak maiteko du,  
 eta harengana etorriko gara. R/.

*Eskatuko diot Nik Aitari,  
 eta emango dizue beste laguntzaile bat.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Maite banauzue, beteko dituzue nire aginduak. Eta eskatuko diot Nik Aitari, eta emango dizue beste laguntzaile bat, beti zuekin egon dadin: egiaren Espiritua; munduak ez dezake har, ez baitu, ez ikusten, ez ezagutzen; zuek bai, ezagutzen duzue, zuekin bizi baita, eta zuen artean baitago.

Ez zaituztet umezurtz utziko, etorriko natzaizue; laster munduak ez nau ikusiko; zuek bai, ikusiko nauzue, eta biziko zarete, Ni bizi bainaiz. Egun hartan ezagutuko duzue, Ni Aitarengan nagoela, eta zuek Nirengan eta Ni zuengan. Nire aginduak hartu eta betetzen dituen, hori da Ni maite nauena; eta Ni maite nauena, maiteko du nire Aitak, eta Nik ere maiteko dut eta agertuko natzaio».

**Oparigaien gainekoa**

Atsegin bekizkizu, Jauna, gure otoitz eta eskaintzak;  
 zure errukiak garbi gaitzala,

zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospa ditzagun.  
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jainko ahalguztiduna,  
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren piztueran;  
ugari itzazu guregan Pazko sakramentuen fruituak  
eta isur gure bihotzetara janari salbagarri honen indarra. Jesu Kristo.